




LIBURUA

Euskal selekzioaren garai-penak



EZ DADILA EGUZKIA SARTU

MARTIN ETXEBERRIA ETA
XABIER ETXEBERRIA

ELKAR, 2006

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

deia berezia du nobela honek, 36ko Gerrari buruzko euskal nobeletako batek ere hartu ez duena: euskal selekzioa sortzen du Eusko Jaurlaritzak, eta futbola gainerako herrialdeak gura begira jartzeko estrategia izateaz gain, haur erbesteratuentzako dirua eskuratzeko ekintza solidarioa ere bihurtzen da. Ondorioz, gerrarekiko ikuspegia aldatu egiten da, lubakietatik atera eta euskal selekzioa dagoen atzerititik jasotzen baita etxean gertatzen ari denaren berri.

Kepa Areso da eleberri honetako protagonista, eta haren ibilerari jarraitzen dio narratzaileak. Pertsonaia gizatiarra da, eta bere ikusmoldea euskal nazionalismo hegemonikoaren barruan kokatzen bada ere, gai da gainerakoak sufirimendua ulertzeko. Selektziora ba-

tzeko deia jasotzen duenean ere kezkek josten dute: futboleko aritzea pribilegioa iruditzen zaio lubakietan aritu ostean. Maitasunari eta laguntasunari buruzko zalantzak ere baditu, eta horrek guztiak pertsonaia sinesgarri egiten du. Hura inguratzen duten bigarren mailako pertsonaien potentziala ere handia da, bereziki emakumezko pertsonaia; ordea, ez dira nahi genduzko bezainbeste gartzen. Protagonistaren amaren lorratza galdu egiten da, Parisera doa semea bisitatzerako, eta etorri bezala desagertzen da, arrastorik utzi gabe. Teodora misterio haragitua da, eta haren gutunetako hizkerak eta tonuak interesa pizten dute. Desiren eta ezinen arteko funanbulua da, amaieran fantasma itxura hartzen duena. Izaskunen begirada iluna da Kepari loa eragotzen diona, eta hari eskain-

tzen zaio istoriozko emakume bakanen artean arreta gehien. Begi horietan aurkituko du irakurleak gerraren paradoxa-rik handiena.

Formari dagokionez, detektibe eleberriaren zantzuak ditu obrak: protagonistak bidaian zehar aurkitzen duen paper zatiak sorrarazten du lehen susmoa. Orobat esan liteke kronika itxura hartzen duela, kapituluak egun bakoitzeko eguneroko gisa antolatuta baitaude, gutun formako kapituluak tartekatuturik. Hala, egitura horretan narratzaile orojakilea hautatzea bitxia gertatzen da, eta lehen pertsonako egunerokoak sinesgarritasun handiagoa izango luke, baita gutunekiko batasun handiagoa ere. Nolanahi ere, irakurraldi atsegina gertatzen da, eta 36ko Gerraren memoriaren transmisiorako erakargarria. ●